

## [Cast/Eusk] Abuztuaren 15ean denok Albertiara!

EUSKO EKINTZA-JARKI :: 06/08/2020

Es necesario revertir la situación anterior y ir creando las condiciones para tejer puentes y marcos de colaboración entre las diferentes organizaciones

### Traducción A. Bas. para La Haine

#### Castellano

El día de la Albertia es un acto de memoria histórica que se celebra en Euskal Herria desde la época franquista. Durante la guerra del 36, Legutiano fue el conflicto más sangriento de Euskal Herria. Decenas de militantes de ANV fueron asesinados entre noviembre y diciembre entre milicianos y gudaris que se enfrentaron a los fascistas. La posición de montaña de Albertia fue defendida por los batallones de ANV Txato Olabarri y Eusko Indarra entre los duros bombardeos fascistas, que mataron y hirieron a unos 350 militantes tanto en el campo de batalla como después de ser apresados.

De esta forma, a pesar de las duras pérdidas sufridas por EAE-ANV, la participación de los milicianos y combatientes de las diferentes fuerzas políticas en Albertia es un elemento a destacar, ya que con la identificación de la amenaza y el enemigo en marcha contra Euskal Herria, los diferentes grupos unieron sus fuerzas y se enfrentaron al fascismo.

En el actual contexto político predomina la desconfianza y la división entre las organizaciones de la izquierda independentista. Así las cosas, a Euskal Herria trabajadora le resulta imposible encarnar en Euskal Herria una alternativa de carácter integral que lleve hasta el extremo el proceso revolucionario. Por ello, es necesario revertir la situación anterior y ir creando las condiciones para tejer puentes y marcos de colaboración entre las diferentes organizaciones. En este sentido, debemos entender el Albertia Eguna de este año como el resultado de la colaboración entre diferentes organizaciones de diferentes trayectorias y procedencias en el camino hacia la superación de esta situación.

Por ello, como punto de partida para superar la situación de división y empezar a sumar fuerzas, hacemos un llamamiento a Euskal Herria Obrera para que se acerque y participe el 15 de agosto a las 12 del mediodía en la cima de Albertia en el acto de memoria histórica ☯

Gora Euskal Herria askatuta!

Gora eusko gudariak!

Independentzia eta sozialismoa!

#### Euskera

Albertia eguna Euskal Herrian frankismo garaitik burutzen den oroimen historikoaren

ekitaldia da. 36ko gerran Legutio inguruan Euskal Herrian jazotako gatazkariak odoltsuena izan zen. Bertan faxistei aurre eginez bizitza eman zuten miliziano eta gudarien artean EAE-ANVko dozenaka militante erail zituzten, azaroaren eta abenduaren bitartean. Albertiako mendiko posizioa, hain zuzen ere, EAE-ANVko Txato Olabarri eta Eusko Indarra batailoiek defendatu zuten faxisten bombardaketa gogorren artean, guda zelaian zein preso hartuta gero 350 militante inguru hil eta zauritu zituztelarik.

Era horretan, EAE-ANV-k galera latzak pairatu zituen arren, Albertian indar politiko ezberdinen gudari eta milizianoek izandako parte hartzea azpimarratu beharreko elementua da, Euskal Herriaren aurka martxan zegoen mehatxua eta arerioa ondo identifikatuta, talde ezberdinek indarrak batu eta faxismoari aurre egin baitzieten.

Egungo testuinguru politikoan, ezker independentistako antolakundeen artean mesfidantza eta banaketa dira nagusi. Gauzak horrela, Euskal Herri Langileari ezinezkoa zaio Euskal Herrian prozesu iraultzailea muturreraino eraman behar duen izaera integraleko alternatiba gorputztea. Horregatik, beharrezkoa da aurreko egoera irauli eta antolakunde ezberdinen arteko zubiak eta lankidetzarako esparruak ehuntzeko baldintzak sortzen joatea. Ildo horretatik, aurtengo Albertia eguna ibilbide eta jatorri anitzetako antolakunde ezberdinen arteko lankidetzaren emaitza gisa ulertu behar dugu, egoera hau gainditzeko bidean.

Hori dela eta, banaketa egoera gainditu eta indarrak batzen hasteko abiapuntu gisa, dei egiten diogu Euskal Herri Langileari, abuztuaren 15ean eguerdiko 12:00etan Albertiako tontorrean Eusko Lurrik antolatutako oroimen historikoaren ekitaldira eta 13:30etan Gazteluako hariztian burutuko den ekitaldi politikora gerturatu eta parte hartzera.

Gora Euskal Herria askatuta!

Gora eusko gudariak!

Independentzia eta sozialismoa!

---

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-abuztuaren-15ean-denok>